

Erabakia, 2025eko irailaren 8koa, UPV/EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordearena, TEKAZELentzat IVApek egindako berariazko hizkuntza-prestakuntzaren eskaintza egiteko dena.

Resolución de 8 de septiembre de 2025, de la vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística de la UPV/EHU, por la que se publica la convocatoria de formación lingüística específica del IVAP para el PTGAS.

UPV/EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian ezarritakoaren arabera, laugarren ardatz estrategikoaren helburu eta ekintzen artean dago hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, teknikari, kudeaketa eta administrazio eta zerbitzueta langileei (PTGAS) zuzenduta.

Según lo establecido en el IV Plan Director del Euskera de la UPV/EHU, uno de los objetivos y acciones del cuarto eje estratégico es ofrecer formación lingüística dirigida al personal técnico, de gestión y de administración y servicios (PTGAS).

Beraz,

Así pues,

Hau erabaki dut:

Resuelvo:

IVApek eskainitako prestakuntza espezifikokoaren deialdia argitaratzea 2025eko urrirako eta azarorako, eranskin honetan adierazitakoaren arabera.

Publicar la convocatoria de la formación específica ofertada por el IVAP para los meses de octubre y noviembre de 2025, según indicado en el siguiente anexo.

Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazio auzietarako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean.

Contra la presente resolución podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante la vicerrectora de Euskera y planificación Lingüística en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses.

Leioan, 2025eko irailaren 8an

En Leioa, a 8 de septiembre de 2025

**Miren Igone Zabala Unzalu
Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea
Vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística**